



**HAL**  
open science

## GABON-KANTAK

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

| Aitor Ortiz de Pinedo. GABON-KANTAK. inPress. artxibo-02304029v1

**HAL Id: artxibo-02304029**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02304029v1>**

Submitted on 2 Oct 2019 (v1), last revised 13 May 2020 (v2)

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

## Edukia

1. Gabon-kantak: sarrera ..... 1
2. Serioak..... 2
  - 2.1. Marijesiak..... 2
  - 2.2. Jose Antonio Gandararen Gabon-kantak ..... 3
3. Umoretsuak: Sor Luisa Miserikordiakoa: “Kopla-jostailuak” ..... 7

### 1. Gabon-kantak: sarrera

Gabonetan bada ohitura Euskal Herrian ospakizunak kantaz hornitzekoa. “Noelak” izeneko konposizioak ez dira faltatu Ekialdeko euskaretan: “Noël” hitza frantsesez, “gabonak” edo “eguberriak” berbekin ematen da euskaraz. Badira Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* klasikoa, edota, ezezagunago bat aipatzearren, Barneix Alzabeheiti-ren, *Noelen lilia*, Barkoxe, 1782, non igandeetako kantak badiren abenduan kantatzeko<sup>1</sup>.

Gabonetako jaiak aukera aproposa izan dira adierazpen artistiko bereziek jendaratean lekua izateko (musika, antzerkia, pintura, gastronomia...), egutegi kristauan leku seinalatua dutenez gero. Jakina denez, neguko solstizioa seinalagarria izan da jentiletan ere, itxura guztien arabera: bada arbolen gurtza, herri-kanta aleman, frantses eta ingelesetan horren lekuko: “Mon beau sapin”; “Oh, Tannenbaum”; “Oh, Christmas tree”... Geure artean eta Arantzazuko behatokitik begira, Pello Zabalak *Naturaren mintzoa* (2000) egunez eguneko dietarioan ematen du arbolen gurtzaren berri zelten artean, urtaroaren arabera, arbola mota bakoitzak haien artean izan duen sinbolismoa gogoan.

Mendebaldeko ondareak baditu erakusgarriak Gabonetako kanten eremuan, nola bestelako literatur emankizunetan. Bizkaierako testuak espero ahal dira eskualde honetarako, jakina baita Urola bailara eta Arabako Iparraldea bizkaieraz aritu direla mendez mende. Euskalki horretakoak dira honako lagin bi. Guztiarekin ere, adibide baterako, zer edo zer esan dezagun Euskalerriko Adiskideen Elkarte burutu ezinik ibili zen hautapen linguistikoaz. Gura zuten euskara eroalea izan zedila beren asmo erreformatzaileak bultzatzeko antzerkiaren eta kanten bitartez. Bizkaiako mugan dauden bailara horietan, bizkaiera, gipuzkera edota gaztelania aukeran zeuden beren asmo didaktikoak

---

<sup>1</sup> <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/B/BordesNoelen.htm> [2019-06-21]

## GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA. EUSKALTZAINDIA)

burutzeko. Inoiz gaztelania hobetsi zuten funtzio linguistiko batzuetarako (*El borracho burlado* Gabonetako antzezlanean, adibidez), eta, esango dugu hipotesi gisa, gipuzkera areago bizkaiera bainoago, erreparatzen badiegu segidako “Kopla-jostailuei”, Munibek onduak. Xabier Altzibarrek aipatu ditu Muniberen loturak Markinarekin. Argia dirudi Euskalerriko Adiskideak bizi ziren inguruak gipuzkerak lilura berezia sortzen ziela, jatorrizko berbetaren gainetik. Gaur egun ere, horrela dirudi. Ez alferrik, Sor Luisa de la Misericordiaren kopletan gipuzkerako adizkien ondoan, bizkaierako partizipioaren agerraldiak topa daitezke. Juan Antonio Mogel, hura ere ilustratuen sailekoa, hein batean, zangalatraba ibili zen bi euskalkien eremuen artean, nahiz eta *Peru Abarka* eleberri dialogatu bikaina Markinako bizkaieraz dagoen.

Duda barik, pozgarria litzateke zehatzago jakin ahal izatea Txorierrin, Uriben, Arratia eta enparauetan zer literatur lan usatu den abelera honetan, Mendebaldeko Gabon-kanten panorama osotuagoa izateko.

## 2. Serioak

### 2.1. Marijesiak

Bizkaiko herri txikietan ohitura ezaguna da Gabonetan, gazteak eta etxez etxe joatekoa eskean Marijesiak izeneko ahapaldiak kantatuta. Gazte taldea, herriko eskolatuek irakatsita, etxe edo baserriaren etartean galdetzeko ohitura izan da: “kantatu ala errezatu?” Sartzean “Ave purísima” esan eta hasten ohi ziren kantatzen gazte berdingoak. Amaieran esker oneko esku-erakutsiren bat egon ahal zen, beste eske-kanta batzuetan bezala. Gazteek *merendola* edo antzekoa egiteko modua izango zuten horrelakoetan: biberak, dirua...<sup>2</sup> Tradizioa etenda egon den batzuetan berreskuratu egin da, eta 2018an Marijesi-kantarien elkarretaratzeak egin dira elizan kantatuta, Interneten eskuragarri, kantari helduek abestuta.

Gernikan ere bada ohitura indartsua Marijesiak kantatzekoa gabaz. Doinuak ez dira beti bat, eta lekuaren arabera alda daitezke. Gernikakoen berri Jose Antonio Arana Martijak jaso du<sup>3</sup>, musikazalea, besteak beste<sup>4</sup>.

---

<sup>2</sup> Ibarrangelun Lorea taldea: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Ibarrangelu#Ibarrangelutar\\_ospetsuak](https://eu.wikipedia.org/wiki/Ibarrangelu#Ibarrangelutar_ospetsuak)

<sup>3</sup> *Música Vasca*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1976, 333 or. Bidegileak bilduman: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-bidegile/eu/euskara\\_sustapena/bidegileak/indice\\_e.asp](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-bidegile/eu/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp) [2019-06-21]

<sup>4</sup> <https://www.urdaibai.org/eu/etnografia/neguaeren/1.php> [2019-06-21] Gernikako Marijesi batzuk.

## GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA. EUSKALTZAINDIA)

Ezagunak zaizkigun txatal batzuk jarriko ditugu segidan, irakurleak begitandu ditzan estilo aldetik:

“Abendu santu honetan/kristoren jaiotzia/kontentuaren haundiz/guztiak poz gaitian.

Maria Jose/Jesus Maria”.

“Ireki dira zeruan ate diamantezkuak/harexekin batera leiho zilarrezkuak...”.

“Adan formatua lehengo lurrian/pekatu egin eban paradisu terrenalian”.

“Hogeitalaugarrena dogu Abenduan, desio genduena bai lortu genduan”.

Badirudi azken aldi honetan Gernikako moldea nagusitzen ari dela, hala letraren aldetik, nola doinuarenean.

Hizkerari erreparatuta , nabari da freskotasun nabaria, bertsolaritza zaharraren bidetik itxura batera (Txirrita...), adierazlea adierazia emateko erabilia, itzulingururik gabe herritar eskolagabeen eguneroko hizkera bizi adierazkorrean.

Fonetismoak tokian tokikoak dira, eta inoiz pentsatuko balitz kopla hauek gizarteratzea hezkuntza zabalagoan, nolabaiteko estandarizazioak egiteko proposamenak badira<sup>5</sup>

Metaforak eta konparazioak herri-literaturako horiek dira, irakurle saiatuak beste non edo non aurkitzeko lana hartu ahal duela (Juan Gartziazen *Txirritaren baratzera Norteko trenbidetik* liburu argian, adibidez): diamantea, urrea, zilarra materialen hitzak hiperboleak adierazteko erabiliak. Ikertu beharko herri-tropo edota baliabide linguistiko horien zabalkundea ahozko literaturan zehar, hemen eta kanpoan.

### 2.2. Jose Antonio Gandararen “Gabon-kantak”

Gernikan Jose Antonio Gandara musikari ospetsuaren Gabon-kantak XVIII. mendekoak dira: umoretsuak omen, eta topa egitekoak, euskaldun zahar eta garai hartako euskaldunberri baten artean. Lehen koplari, ahozko literaturan

---

<sup>5</sup> Andres Alberdi. *ESTANDARIZATU GABEKO SOLASAK nola eman ikasliburuetan*. EIMA. [http://www.irale.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=0df4d665-61fe-4261-ab04-ccc8ea185080&groupId=17604](http://www.irale.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=0df4d665-61fe-4261-ab04-ccc8ea185080&groupId=17604) [2019-06-21]

erabili diren irudi elkarren ondoan jartzeko prozedura darabil Gandarak, Manuel Lekuonak *Ahozko literatura* hitzaldian azaldu zuen moduan, 1973an<sup>6</sup>

### Eder dek olaan gabia (1705)

Leloa

Eder dek<sup>7</sup> olaan<sup>8</sup> gabia<sup>9</sup>  
larre onean ardia...  
Nafar<sup>10</sup> baino hobe diagu  
Zaragozako zuria<sup>11</sup>.

Brindatzen diat, Zeledon:  
honixek egiten dik on,  
sekulako honez gero  
izango gaituk gu gizon.

Koplak

Beleneko portalepean  
omen zeagok<sup>12</sup> Jaungoikoa,  
hura ekusten<sup>13</sup> han omen dek<sup>14</sup>

---

<sup>6</sup> Lekuona'tar Manuel (1978) *Idaz-lan guztiak (1. Aozko literatura)*. Kardaberaz bilduma 22. Tolosa/Vitoria. Gaztelaniaz bada *Literatura Oral Vasca* ikerketa luze klasikoa liburuki berean.

<sup>7</sup> dek=duk

<sup>8</sup> olaan=olan

<sup>9</sup> Euskalkietako hitzak bilatzeko erabil daiteke Orotariko Euskal Hiztegia: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu) [2019-06-22]

<sup>10</sup> Nafar arrazako ardiak kolore zurikoak dira, entrefinoak diren ardien taldean sailkatzen dira, profil azpiganbilekoak, eumetrikoak eta lerroerdikoak dira. Adats zurikoak eta adarrak gabekoak izaten dira [https://eu.wikipedia.org/wiki/Nafar\\_ardi\\_arraza](https://eu.wikipedia.org/wiki/Nafar_ardi_arraza)

<sup>12</sup> omen zeagok=omen dago

<sup>13</sup> ekusten=ikusten

Paskoal gure aldekoa.

Goazen gu ere, Petiri,  
Paskoal ez dek agiri;  
ardiaz kontu dadukala<sup>15</sup>  
ezan zeagot Gatziri.

Tenporau<sup>16</sup> agon arren hotz,  
banatxeak<sup>17</sup> ni gogoz;  
halako Jauna ekustekoz  
zer erur ta zer izotz?

Portalepean omen zeagok  
haurtxoa narrugorrian<sup>18</sup>,  
dama eder bat dadukala<sup>19</sup>  
aldean bere adian.

Gizon bat ere omen dek  
dirudiana santua,  
bere izenez deritzena<sup>20</sup>  
San Josef justua.

Haur gazte honen ohea

---

<sup>14</sup> dek=duk

<sup>15</sup> zeagot= diot

<sup>16</sup> Tenporau=denbora hau

<sup>17</sup> banatxeak=banoa (

<sup>18</sup> narrugorrian=biluzik

<sup>19</sup> dadukala=edukitzeko

<sup>20</sup> deritzena: izena duena

GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA.  
EUSKALTZAINDIA)

gutziz omen dek pobrea,  
lastoz debana<sup>21</sup> koznea,  
otez<sup>22</sup> ohabetea<sup>23</sup>.

Bere aldean omen zeatuk<sup>24</sup>  
astoarekin idia;  
hoetxek biok jango zegoe  
oheko lasto guztia.

Astoak on dik oloa<sup>25</sup>,  
idiak arto-lastoa...  
Festa honetan edan dezagun,  
Petiri, ekar ardoa.

Bertsioaren oinarria: Manuel Lekuona, “Gabon-  
kantak”, *Egan*, 1956 (5-6), 27-28 or.

Bilbon ere kantatu ohi ziren euskaraz kantak Gabonetan aurreko  
mendeetan estilo horretan, hau da, bertso sorta luze samarretan: jasota daude, eta

---

<sup>21</sup> daukana

<sup>22</sup> ota=argoma

<sup>23</sup> ohea

<sup>24</sup> zeatuk=dauzka

<sup>25</sup> astoaren bazka

## GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA. EUSKALTZAINDIA)

argitaratuta, eskuragarri, oker ez bagaude San Antoneko parrokia jatorria dutenak.

Beste herri batzuetan Gabon-kanta bestelakoak entzun dira: “Mesias sarritan agindu zana..”; “Oi, Betleem etorri da zure garaia..”; “Aingeru batek Mariari diotso graziaz betea...; Belengo portalian negu gogorrian jaio da Gure Jesus ostatu batian...”; Bilbon gaztelaniakoak ere kantatzen ditu herriak: “Beben y beben los peces en el río..”, eta gisakoak. Hala euskaraz, nola gaztelaniaz badira Gabon-kanten aldaera umoretsuak, batzuetan ukitu ironiko zein erotikoarekin<sup>26</sup>.

### 3. Umoretsuak: Sor Luisa Miserikordiakoaren “Kopla-jostailuak”

Adierazi gura duguna da, euskaraz, Muniberen *Kopla-jostailuak* ere jostalari samarrak direla, eta gehiegizko solemnitatea gainditzeko saiociek ere zentzua izan dezaketela. Markinan lurperatuta dagoen Munibe (Sor Luisa de la Miserikordia izenarekin agertua kopla-jostailu izeneko hauetan).

Munibe Ilustratuak, Euskalerriko Adiskideen Elkarteko handikia, herriaren aurrerabide ekonomiko, eta kulturalaren aldeko ikuspegia islatzen du kopla umoretsu hauetan. Testua irakurrita, erraz antzemango zaio Oñati eta inguruetakoko eskualdeetan errotuta zeuden zalduntxoekoen espiritua. Bakearen aldekoa etorkizunari begira, eta herri ultraerlijiosoan lozorrotik ateratzeko ekimen gutxi asko urardotua, Frantziako beren jatorrizko ereduarekin konparatuz gero. Harrigarria da egileak bere buruari farre egiteko askatasun hori, non bizitza osoan zehar sakatu zituen idealak burlaizean aipatzen dituen. Bide beretik ikusten dugu “El borracho burlado” antzerki umoretsua, Gabon girokoa eta beti ere edifikatzeko asmoz idatzia, despotismo ilustratuaren eredura. Pedro Antonio Barrutiaren antzerkia ere bada, giro horretan baina urrutiegi joango ginatete<sup>27</sup>.

Jatorrizko iturria: Luisa Miserikordiakoak, *Gavon-sariac*. (sic) Azkoitia: Miserikordian, 1762.

---

<sup>26</sup> “En el camino que lleva a Belén, va una rubia que no lleva sostén/los pastorcitos se la quieren tirar/pero no llevan más que un roto condón, ropopopon”. Villamedianako lekukoa, Logroño ondoan. Umorezko beste bat lekuko berarena: “La Virgen María parió sin dolor: tractores, cosechadoras, tres o cuatro trillaoras”.

<sup>27</sup> Gabriel Arestik *Teatro zarra* izeneko liburuan jaso zituen antzerki hauek, Auspoa argitaletxeagaz: [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/auspoa/9291.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/9291.pdf) Erne ibili behar da, Arestiren Gabon giroko lanok nork idatzi dituen jakiteko, autore baten ezizenak (Muniberenak) eta Pedro Ignazio Barrutiaren lana bereizteko *Gabonetako ikuskizuna*. Literturaren Zubitegian ere, Arestirena: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MunibeSariak.htm> [2019-06-21].



# GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA. EUSKALTZAINDIA)

Bertsioaren oinarria. *Gabonsariak; El borracho burlado* / Xabier de Munibe, Conde de Peñaforida. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1991, 191-195. or. [Edizio kritikoa: Xabier Altzibar].

## Kopla-jostailuak

Ezagun du munduak  
Jesus jaio dena,  
hain dago mudatua<sup>28</sup>  
ez dirudi le(he)na:  
le(he)n guzia zan pena,  
negar, nahibageak,  
ta orain atsegin, gusto,  
algara, farreak.

Gorroto, errierta<sup>29</sup>,  
auziak ta gerra,  
gaitzak, gose, gezur ta  
intentzio okerrak  
juanik: ja ez dago  
ezerren bildurrik  
ta hala dago mundua  
zeru bat eginik.

Abogadu, eskribau  
eta merioak<sup>30</sup>,  
mediku, barbero ta  
botikarioak,  
ez dira behar; ta hargatik  
izango da sarri  
Hipokrates gaxoa  
saguen janari.

Ezpataak, lantzaak eta  
beste arma guziak  
erositzen dituzte  
errementariak:  
ta alferrikan ez dedin  
galdu burnia hura,  
enpletzera diaz  
gure probetxura.

Atxur, burdinara ta  
golde bihurturik,  
nekazari langinak  
ongi giaturik,  
emango digu lurrak

---

<sup>28</sup> mudatua=aldatua

<sup>29</sup> errierta=haserre

<sup>30</sup> merioak=ibar-jaun, merino

garia ta artoa,  
gaztaina, sagardoa  
ta ardoa nahikoa.

Garia eta artoa  
merke ta ugariro,  
gaztaina ta sagarra  
berriz urte oro;  
ta ardoak, galdurikan  
le(he)ngo malizia,  
ez gaitu mozkortuko,  
edan zia-zia.

Ez da honez gero esango  
gezurrik batere,  
egia esango dute  
dendariak ere:  
juan da hemendik tranpa  
ta fede gaistoa,  
ja ur bage saltzen da  
tabernan ardoa.

Basa arteko piztiaak  
maltso-maltso eginik  
ez dute ja alkar jaten  
ta hain gitxi gizonik:  
bat eginik guziak  
elkarren artean  
bizi dira etsai gabe  
kontentuz bakean.

Otsoa eta ardia  
zelai zabalean  
sarri ekusten dira  
biak jolasean:  
alberdania<sup>31</sup> txita  
aizariarekin<sup>32</sup>,  
portugesaz laztanga<sup>33</sup>  
gatzelaubarekin.

Hauxen bai dala egiaz  
denbora urrezkoa,  
ta ez le(he)n koplari za(ha)rrak  
erausitakoa:  
orain haien amesak  
egia sorturik,

---

<sup>31</sup> jolasean

<sup>32</sup> azeriarekin

<sup>33</sup> laztanka

GABON-KANTAK (EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA.  
EUSKALTZAINDIA)

ekusten adi gera  
pozez zoraturik.

Baina kanta berriau  
gehitxo luzatu da,  
nere eztarri tristea  
ja urratu da:  
nahiago det ixildu  
katarratu baino.  
Agur, nere jenteak,  
hurrengo urteraino.

Ikusi uste dugu kopia hauetan literatur topiko ezagunaren agerraldia, hau da, alderantzikatutako munduaren topiko hori: gaixotasunak desagertuta, armen burdina goldetarako erabilia; aberastasuna erruz; egia nagusi; etsaitasunik ez (gaztelaua portugesearekin, elkarri mokoka ibili berriak gudu latzean). Frantzisko Xabier Munibe, Peñafloredako kondeak egindako lana aztertu du Xabier Alzibarrek.

Bernardo Atxagak badu antzeko bertso-sorta Erruper Ordorikak kantatua ("biziko gara horrela hirurehun bat urte/banku guztietako jabetzaren kalte/sufrimendua eta negarraren orde, ferra eta parrandaz historia betez")<sup>34</sup>. Paco Ibañezek era badu antzekoa: "Todas esas cosas había una vez, en que yo soñaba un mundo al revés"<sup>35</sup>.

---

<sup>34</sup> <http://www.badok.eus/euskal-musika/rupe-ordorika/hausti-da-anphora/hitzak/9173-zenbait-bertso-xelebre/> [2019-06-21]

<sup>35</sup> <https://www.lettras.com/paco-ibaez/656950/> [2019-06-21]